

# | ETXEBIZITZA

gida  
lasterra



LAGUN ARO

# 5

## Kontsumitzailearen defentsa juridikoa

Nola jokatu ezbeharra gertatuz gero?

Estaldura kontratatuta baduzu, erantzun egingo dugu, bai erantzulearen aurka adiskidetasun-bidetik jo nahi duzunean bai bere aurkako ordainketaren erreklamazioa judizialki egin nahi duzunean. Erantzun hori ondorengo kasuetan emango da:

- Ondasun higigarriak erostean
- Zerbitzu-kontratua betetzen ez denean.
- Hornidura-kontratuak betetzen ez direnean.
- Etxebizitzan eraberritze- eta konponketa-lanak egiteko kontratuak betetzen ez direnean
- Errentatzailearen aurrean, alokairu-kontratuetatik eratorritako gatazketan.

## Defentsa juridiko zabaldua

Nola jokatu ezbeharra gertatuz gero?

Kontratatutako estaldura honekin, aseguruaren edo aseguru izaera daukan edozein pertsonaren bizitza pribatuaren esparruari dagokion defentsa eta eskubideen erreklamazioa estaliko dira ondorengo kasuetan:

- Etxebizitzaren gaineko eskubideak (Ke- edo gas-isuriak, mugak, etab.).
- Lan-erreklamazioak
- Zuzenbide fiskala
- Etxe-zerbitzuak

Estaldura hau erabiltzeko, deitu **902 38 08 38** edo **944 94 74 28** telefonoera eta zure erreklamazioa jasoko dute. Ondoren, espezializatutako gure saila zurekin harremanetan jarriko da erreklamazioa izapidetu eta kudeatzeko.

# 6

## Errentatzailearen defentsa juridikoa

Nola jokatu ezbeharra gertatuz gero?

Estaldura kontratatu baduzu, bide judizialek zure eskubideen defentsa eta erreklamazioa artatu eta kudeatuko ditugu, betiere, **polizan aseguratutako etxebizitzarentzat indarrean dagoen alokairu-kontratuarekin** lotutako gatazketan.

Estaldura hau baliatzeko, deitu **902 38 08 38** edo **944 94 74 28** telefonora eta zure erreklamazioa jasoko dute. Ondoren, espezializatutako gure saila zurekin harremanetan jarriko da erreklamazioa izapidetu eta kudeatzeko.

